



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 18a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzekoa. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldek aurkeztu dute (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, lurzorua eta etxebizitzaren gaineko politikari buruzkoa: gobernuak lurzoru publikoa erosteko bukatu berri den lehiaketari buruz egiten duen balorazioa azal dezan. Aralar parlamentu-taldeak egina (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion. UPN, SPN, Aralar, IUN-NEB, Nafarroako Demokraten Elkargunea, EA eta Askotarikoa parlamentu-taldek aurkeztu dute (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bere sostengua adierazten dio Kolonbian giza eskubiak aldeztu eta babesten Nazioarteko Bake Brigadek egiten duten lanari. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Iruñerriko hirigintza arauak ordezkatzeko dituen lurralde antolamenduaren plana ea zertan den jakitekoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Volkswageneko lan-gatazkan duen jarrerari buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Erriberan abiadura handiko tren delata eta ebazteke dauden zenbait auziri buruzkoa, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egina (10. or.).

- Galdera, gaixoen historia klinikoen inguruko hainbat auziri buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (11. or.).
- Galdera, otsailaren 4an Xabierren antolatu ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruzkoa, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (12. or.).
- Galdera, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatueta igortzeari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egina (13. or.).
- Galdera, harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (14. or.).
- Galdera, Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Aralar parlamentu-taldeak Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

2003an, legebiltzar honek Larrako natur erreserba berriz mugatu zuen legez, Belaguan ipar

eskiko zentro bat eraikitzeko proiektua bideratu ahal izateko, zeren eta proiektaturiko pistek Larrako erreserbako mugapea inbaditzen baitzuten, eta, beraz, legez, ezinezkoa zen proiektu horri ekitea.

Legebiltzar honek onetsitako aldaketa, parkearen hedadura gutxitzen zuena haren perimetroetako bat mugatuz, justifikatu ziren ipar eskiko zentroaren proiektua eta diseinaturiko pistak eraikitzeko behar hutsarengatik.

Legebiltzar honetan izaniko eztabaidan, argi geratu ziren mugapen horrek natur erreserba horretarako eta hartan bizi diren espezieentzat izanen zituen ondorio kaltegarriak.

Behin ezaguturik Erronkari Ibarreko Batzarrak aurkeztu eta tramitatu duen ipar eskiko zentroaren proiektua, eta jakinda hartan aldaketa batzuk egin direla pisten behin betiko trazaduran, eragile batzuek ingurumena dela eta egin dituzten iradokizunei jarraituz, agerian gelditu da sarturiko aldatetekin bidezkoa izanen zela proiektua gauzatzea, Larrako natur erreserbaren mugaketa egin gabe ere.

Lege proposamenaren testua:

Artikulu bakarra. Larrako natur erreserbaren mugapena abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea onetsi aurretik legez zegoen mugapenera itzultzen da.

Azken xedapena. Lege aldaketa honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzeko Foru Lege proposamena

Lehen artikulua. Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua aldatuko da. Testu hau izanen du:

“67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntasun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago kobratzen badute –ekainaren 25eko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikuluan aipatzen diren osagarriak barne, kasu bada, eta kontuan hartuta errentan deklaraturiko

beste kontzeptu batzuegatik edukitako gainerako dirusarrerak–, eskubidea izanen dute aipatu lanbide arteko gutxieneko soldatara arteko osagarri bat jasotzeko.

Alarguntasun pentsioarengatiko errentaren gaineko zergaren kenkari gisako osagarria, edonola ere, alarguntasun pentsio horrek indarra duen zergaldian zehar sortuko da.

Zilegi da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari eskatzea kenkari hori denbora baino lehen ordain dezan. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta behar baino lehenago jasotzeko eskaera egin eta eskuratzekoa ere. Halaber, erregelamendu horretan arautuko da subjektu pasiboaren, hau da, alarguntasun pentsioa jasotzen duenaren, gainerako dirusarrerak zenbatzeko modua.”

Bigarren artikulua. Ebazpen honen ondorio ekonomikoek atzerako eragina izanen dute 2006ko urtarrilaren 1etik.

Hirugarren artikulua. Arau honen ondoriozko betebeharre aurre egiteko aurrekontu-dirua Nafarroako aurrekontuan dagoena da.

Azken xedapenetan lehena. Ahalmena emanen zaio kontseilariari foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontra-koak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkaria Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, baina 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

ZIOEN AZALPENEA

2003an ondoz ondo eman ziren bi foru legetan onetsitako alargun pentsioetarako gehigarria –geroztik hainbatetan aldatu da– zaharkiturik geratu da.

2003ko foru legeek –horietako lehenbizikoa Nafarroaren laguntza izaerako eta gizarte ongizateko eskumenetan oinarritua, eta bigarrena edukietan eta eraginetan lehengoaren antzekoa baina

kenkari fiskalaren egitura formala erabiltzen duena– lanbide arteko gutxieneko soldata jartzen zuten muga gisa.

Geroztik egin zen aldaketa batean, muga ezarri zen Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoan (IPREM).

Jurisprudentziak egin duen interpretazioak agerian utzi du adierazle hori, alegia Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoa, ez dela nahitaezko erreferentzia, baizik eta hautazkoa.

Horri gehitu behar zaio ekainaren 6ko 9/2005 Legearen onespena –2005eko irailaren 1etik aurrera du indarra–, berekin ekarri baitu alargun askok beren pentsioak handitzea, egun horretatik aurrera beste pentsio batzuk ere bateragarriak baitira.

Aurreko guztiaren ondorioz, oso nabarmena da lege honen xedea den osagarriari dagozkion alarguntasun pentsioak osatzeko neurriaren kostuak izan duen beherakada.

Are nabarmenagoa da aldaketa horien ondorioz onuradun gehienek jasotzen duten pentsio osagarria % 25era jaitsi dela. 2006an, alargun askok 6 euro baino gehixeago egiten duen osagarria jaso dute; hori ikuspuntu ekonomikotik huskeria da, eta, gainera, berekin ekarri du pertsona horiek bidegabekeriaren sentsazioa izatea –ulertzekoa den moduan, bestalde–.

Hori guztia dela eta, beharrezkoa da berriz ere muga gisa ezartzea lanbide arteko gutxieneko soldata, eta berreskuratzea, hartara, araua sustatzeko hasierako asmoak.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, lurzoruaren eta etxebizitzaren gaineko politikari buruzkoa: gobernuak lurzoru publikoa erosteko bukatu berri den lehiaketari buruz egiten duen balorazioa azal dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak lurzoruaren eta etxebizitzaren gaineko politikari buruz –gobernuak lurzoru publikoa erosteko bukatu berri den lehiaketari buruz egiten duen balorazioa azal dezan– aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeak Osoko Bilkurarako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebi-

zitza kontseilariari, eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Lurzoruaren eta etxebizitzaren gaineko politikari buruzko jabeldura: lurzoru publikoa erosteko bukatu berri den lehiaketari buruz egiten duen balorazioa azal dezan gobernuak; eskaintza onartzeko eta beste eskaintza batzuk bazter uzteko irizpideak eta balorazioak, eta departamentuak onartutako lurzoru eskaintzei buruzko jarduketei buruz dauzkan planak.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion.

UPN, SPN, ARALAR, IUN-NEB, NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA, EA ETA ASKOTARIKOA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

UPN, SPN, Aralar, IUN-NEB, Nafarroako Demokraten Elkargunea, EA eta Askotarikoa parlamentu-taldeen ondoko mozioa aurkeztu du: "Espainiako Gobernua premiatzen da apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari konponbide bat eman diezaion".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozioaren xedea da konponbidea ematea apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboaren gizarte babesgabetasunari.

70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadaren hasieran, Espainian apaiz eta erlijioso ugari sekularizatu egin ziren.

Kolektibo horren barruan, aipatzekoa da Colectivo de Sacerdotes y Religiosos Secularizados (Cosarese) izeneko elkarte, Nafarroan 160 kide eta Espainia osoan 8.000 kide baino gehiago baitauzka.

Aspaldi horretan, behin eta berriz salatu izan dute apaiz eta erlijioso sekularizatuen gizarte babesgabetasuna, Gizarte Segurantzaren kotizatu ez dutelako eta, horrenbestez, erretiro duina lortzea ezinezkoa zaielako.

Kolektibo horretako kideek erretiroa lortzeko bidea erregulatzeko prozesuan, lehenbizi ukituriko alde guztiek –hau da, Estatuak, Eliza eta onuradunak– kostuak “batera finantzatzeko” aukeraren alde egin zen, eta horixe izan zen legegileen borondatea, Diputatuen Kongresuak gehiengo

onetsi zuen legez besteko proposamenean adierazitakoa.

Hala eta guztiz ere, ondoren onetsi ziren errege dekretuen ondorioz, aukera hori alde batera utzi zen, eta finantzaketaren ehuneko ehun aldeetako baten bizkar utzi zen, hain zuzen ere ukituriko kolektiboaren bizkar.

Hori dela-eta, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan behar den erregelamenduzko aldaketa susta dezan, Diputatuen Kongresuak 1995eko irailaren 19an gehiengo onetsi zuen legez besteko proposamenean eta abenduaren 30eko 13/1996 Legeko hamargarren xedapen gehigarrian legegileek adierazi zuten borondatea guztiz bete dadin, hau da, konponbidea eman dakion Espainiako apaiz eta erlijioso sekularizatuen kolektiboak pairatzen duen gizarte babesgabetasunari.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Fernando Puras Gil, José Miguel Nuin Moreno, Patxi Zabaleta Zabaleta, Juan Cruz Alli Aranguren, Helena Santesteban Guelbenzu eta José Luis Etxegarai Andueza

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak bere sostengua adierazten dio Kolonbian giza eskubideak aldeztu eta babesten Nazioarteko Bake Brigadek egiten duten lanari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Gaur eginiko bileran Eledunen Batzarrak hartutako erabakia argitara dadila agintzea. Haren bidez, onetsi egiten da Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Bereziaren erabakiz aurkeztutako proposamena, sostengua adierazten diona Kolonbian giza eskubideen defentsan eta babeserako Nazioarteko Bake Brigadak egiten duten lanari.

“1.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, errespetatu beharrekoa da Comunidades de Autodeterminación, Vida y Dignidad (Cavida), Consejo Comunitario Mayor del Jiguamiandó eta Comunidad de

Paz de San José de Apartadó izenekoek, zibilak diren aldetik, gatazkaren barruan ez egoteko duten eskubidea, eta borrokariak, gerrillakoak izan nahiz indar armatuetako edo talde paramilitarretako kideak izan, eremu humanitarioetatik kanpo egon eta eremu horiek errespetatu behar dituzte.

2.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatu Gobernuak premiatzen du Kolonbiako agintariari eska diezaien Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren behin-behineko neurriak errespetatu ditzaten, haien bidez egoki babestu nahi baitira erkidegoak, eta aplikatzen diren babes neurri horiek erkidegoarekin itun daitezzen.

3.- Nafarroako Parlamentuak exijitzen du azkar argitu dadila, ikerketa inpartzial eta sakon baten bitartez, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen goi-komisarioaren Kolonbiako Bulegoak adierazi duen bezala, otsailean Comunidad de Paz de San José de Apartadó izenekoan gertaturiko sarraskia, eta argitu daitezela, halaber, azaroaren 17an Arenas Altas bidezidorrean gertaturikoak.

4.- Nafarroako Parlamentuak bere sostengua adierazten dio Kolonbian giza eskubideak aldeztu eta babesten Nazioarteko Bake Brigadek egiten duten lanari.”

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñerriko hirigintza arauak ordezkatu dituen lurralde antolamenduaren plana ea zertan den jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Iruñerriko hirigintza arauak ordezkatu dituen lurralde antolamenduaren plana ea zertan den jakiteko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilari José Andrés Burguete jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galdera:

Zein egoeratan dago lurralde antolamenduko plana (POT) Iruñerriko eskualdeko hirigintza arauak (NUC) ordeztuko dituen eta departamentu horrek eskualdeko toki entitateekin luzaz eztabai datu duena Lurzoruaren Mahaia izeneko erakunde?

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, Gobernu lehendakariak Nafarroako Volkswageneko lan-gatazkan duen jarrerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Gobernu lehendakariak Nafarroako Volkswageneko lan-gatazkan duen jarrerari buruz foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix Tabernak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernu lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zail gertatzen ari da Volkswagen lantegiko hitzarmen kolektibo berriaren inguruko negoziazio kolektiboa. Langileek oso bateratuta egin dituzte mobilizazio eta grebak, patronalarekin jarreretan dauzkaten aldeak oso nabarmenak baitira.

Langileen eta enpresaburuen arteko negoziazio kolektiboa errespetatzea eta hartarako eskubi-dea izatea berezko ditu sistema demokratikoak. Hori dela eta, harrigarria da Nafarroako Gobernuo lehendakariaren jarrera, hasieratik Alemaniako multinazionalaren aldeko jarrera hartu baitu, hartara langile nafarren jarrera ahulduz.

Hori dela eta:

Zergatik sartu da Nafarroako Gobernuo lehendakaria Volkswageneko lan gatazkan, alderdi baten, hau da, enpresaburuen, alde eginez eta Nafarroako langileen borondatea errespetatu gabe?

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Erriberan abiadura handiko trena dela-eta ebazteke dauden zenbait auziri buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak egindako galdera, Erriberan abiadura handiko trena dela-eta ebazteke dauden zenbait auziri buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Anduezak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Kontseilariak 2004ko urrian Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordean egin zuen agerraldian abiadura handiko trena zela-eta esan zuen I. tartearen –Zaragoza eta Castejón artekoa– ingurumen eraginaren adierazpena eta informazio azterlana baizik ez zela falta –hau da, behin betiko trazadura–, eta haren iritziz behar zen onespena berehala emanen zela.

Bestalde, iragarri zuen, era berean, hurrengo asteetan Nafarroako Gobernuak, Sustapen Ministerioaren batera, abian jarriko zuela abiadura handiko trena Tuteratik iragaten den tarterako alternatiben azterlana, aztertu ahal izateko, horrela, Nafarroako Erriberarentzako apustu garrantzitsu horretarako dauden aukerak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Ikusita Zaragoza-Castejón tarteari dagokion azterlana, dirudienez, 2003ko azaroan Ingurumen Ministerioari igorri zitzaioala ingurumen eraginaren adierazpena egin zezan, eta ikusita, halaber, adierazpen hori ez dela oraindik onetsi, ba al daki Nafarroako Gobernuak zergatik dagoen deklarazio hori geraturik Estatuko administrazioan? Zein urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak tramitazio hori bultzatzeko? Zer irizten dio geratze horri?

2. Abiadura handiko trena Tuteratik iragaten den tarterako alternatiben azterlana abian jarri al da? Zein aurrerapen eman dira 2004tik balizko trazadura horiek direla eta? Aurrerapenik eman ez bada, horretarako arrazoiak ezagutu nahi ditugu?

3. Ba al dago aurrerapenen bat edo informazio berriren bat Nafarroako Erriberan abiadura handiko trenak izanen lukeen geltokiari buruz edo aipatu trenaren geltokiren bat Tuteran jartzeari buruz?

Iruñean, 2006ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: José Luis Etxegarai Andueza

Galdera, gaixoen historia klinikoen inguruko hainbat auziri buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, gaixoen historia klinikoen inguruko hainbat auziri buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Historia klinikoak direla-eta azken bolada honetan egiten diren laguntza teknikoko eta hornikuntzako kontratuen maila ikusita, ondoko galderei erantzutea eskatzen dugu:

1. Gaixoen dokumentazio klinikoan ba al dago adostasunaren gaineko protokoloen bat?

2. Nola kontrolatzen dituzte ukituek dokumentazio klinikoaren erabilera eta haren gaineko beste erabilera ez-terapeutiko batzuetarako onarpena?

3. O-NOZen ba al dago datuen babesaren arloko segurtasunaz arduratzen den norbait? Nor eta noiztik? Zein eginkizun jarri zaizkio?

4. Noiz egin da kontrolen betetzea egiaztatze-ko azken auditoria? Zenbateko maiztasunez egin dira eta nork egin ditu? Halakorik egin ez bada, ikuskatzeko zein plan sektorial dago? Zenbat? Noiz egin dira, zein sektoretan eta zein emaitza eman dute?

5. Osasun arloko langileei eta osasun arlokoak ez direnei berariazko prestakuntzarik eman al zaie dokumentazio klinikoaren isilekotasunari buruz? Zein izan da azken prestakuntza-jarduera, nola-koa izan da eta zein langileri zuzendu zaio?

6. Nola, non eta zenbat denboraz eusten zaio artxibaturik nafarren dokumentazio klinikoari?

7. O-NOZen plantillako langilerik ba al dago eginkizun horiek esleiturik duenik, edo kanpoko langile edo enpresei esleitu zaizkie? Bi kasuetan, langile motak, pertsonen kopurua eta gai horren kostua edo hartan eginiko gastua jakin nahi dugu.

8. Nola bermatzen da isilekotasuna historia klinikoen tratamendu informatikoan eta informazioaren erabileran, bai osasun arloko langileen kasuan bai gainerako langileen kasuan (administrariak, kontulariak eta abar), eta, batez ere, O-NOZek kontraturiko kanpoko enpresen menpeko langileen kasuan?

9. Noiz, nola, non eta zein bitartekorekin garbitzen eta suntsitzen da dokumentazio klinikoa?

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, otsailaren 4an Xabierren antolatu ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, otsailaren 4an Xabierren antolatu ziren ekitaldietara joan ziren pertsonen buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Toki Administrazio kontseilariak idatziz erantzun dezan.

2006ko otsailaren 23an, Xabierren alkateekin antolaturiko ekitaldia zela eta, ondoko galdera egin nion Toki Administrazio kontseilariari:

– Zein alkate joan ziren? Izena eta herria zehaztu.

2006ko martxoaren 14an, departamentuak erantzuna eman zuen, zehaztuz ospakizuna izan baino egun batzuk lehenago alkatea edo zinegotziren bat bidali behar zuten udalen zerrenda.

Argi dago emandako erantzuna ez dagokiola galderari, zeren eta parlamentari honen bai baitaki erantzunean aipaturiko batzuk ez zirela ospakizunetara joan; hori dela eta, ekitaldira nor joan ziren jakin nahi dugu, eta horretarako ondoko galderak egiten ditugu:

– Ekitaldira joandako pertsonaren izena.

– Zein kargu betetzen duen udalean.

– Zein udaletakoa den.

Iruñean, 2006ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, Ubarmin Klinikako interbentzio kirurgikoekin lotutako zenbait auziri buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion.

1.- Zenbat ebakuntza kirurgiko egin dira arratsaldeko ordutegian Ubarmin Klinikako ebakuntza-geletan Osasun kontseilariak otsailaren 14an eginitako iragarpenaren ondoren?

2.- Zer eragin izan dute ebakuntza horiek Ubarmin Klinikaren itxaron-zerrendetan? Aipatu zenbat gaixo zeuden itxaron zerrendan 2006ko urtarrilaren 1ean eta zenbat dauden gaur egun.

3. Noizko aurreikusi du departamentuak Ubarmin Klinikako Plan Zuzendariarekin jarraitzea eta,

horrenbestez, noizko aurreikusi du ebakuntza-gela berriak lanean jartzea eta egun itxita dauden solairuak irekitzea?

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESCARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak egindako galdera, kirurgiako itxaronzerrendetako gaixoak zentro pribatuetara igortzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun diezazkion.

1.- Nafarroako Ospitaleko kirurgiako itxaron zerrendako zenbat gaixo bidali dira 2006ko urtarrilaren 1etik zentro pribatuetara? Zehaztu zein zentrotara eta zein ebakuntza mota izan diren.

2.- Zenbateko gastua ekarri du gaixoak beste zentro batzuetara bidaltzeak? Zehaztu gastua zentro pribatuen arabera eta ebakuntza motaren arabera.

3.- Bideko Ama Birjina Ospitaleko kirurgiako itxaron zerrendako zenbat gaixo bidali dira 2006ko urtarrilaren 1etik zentro pribatuetara? Zehaztu zein zentrotara eta zein ebakuntza mota izan diren.

4.- Zenbateko gastua ekarri du gaixoak beste zentro batzuetara bidaltzeak? Zehaztu gastua zentro pribatuen arabera eta ebakuntza motaren arabera.

5.- Ubarmin Klinikako kirurgiako itxaron zerrendako zenbat gaixo bidali dira 2006ko urtarrilaren 1etik zentro pribatuetara? Zehaztu zein zentrotara eta zein ebakuntza mota izan diren.

6.- Zenbateko gastua ekarri du gaixoak beste zentro batzuetara bidaltzeak? Zehaztu gastua zentro pribatuen arabera eta ebakuntza motaren arabera.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin eman diren urratsei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

- Zein urrats egin ditu zuk zuzentzen duzun departamentuak harzuriaren sektorea bizkortze aldera Legebiltzarrak onetsi zuen mozioa bete dadin?

- Egin diren urrats horietan, nola hartu dute parte ukitutako aldeak ?

- Nolako balorazioa egiten duzu Nafarroako Gobernuak harzuriaren sektorearekin hartu duen konpromisoaren betetze mailari buruz?

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariak apirilaren 5ean egindako agerraldiak sortutako zenbait zalantzari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko lehendakariaren apirilaren 5eko agerraldiaren ondoren, argitu beharreko zalantza batzuk geratu dira, Nafarroako Justizia Administrazioaren funtzionamenduan eragin handia baitute; hori dela eta, ondoko galderei erantzutea eskatzen dugu:

- 1.- Zein arazo sortu dira, sistemarekin berarekin eta enpresa hornitzailearekin, "Avantius" sistema ezartzeko eta erabiltzeko garaian?

- 2.- Zein arrazoi daude Erregistro Zibilaren informatizazioa burutu gabe edo geraturik egoteko?

- 3.- Zein da bide telematikoko informazioaren egoera? Zer egitea aurreikusi da?

- 4.- Zein urrats egin dira justizia aretoetan grabaketak egin ahal izateko?

- 5.- Ba al dago Nafarroako Justizia Administrazioaren garapen informatikorako planen bat? Halakorik baldin badago, erantsi horren kopia.

6.- Nola bermatu nahi da, funtzionamendua galarazi gabe, hedabideak epaiketetan egon ahal izatea?

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Senda Viva naturaren parkeko inbertsio publikoei eta aurreikusitako bisitari kopuruari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatu-

aren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

- Zein aurreikuspen egin ditu departamentuak hastekoa den denboraldian “Senda Viva” Naturaren Parkea irekita egonen den hilabeteei buruz eta espero izatekoak diren bisitariei buruz?

- Atrakzio berriei ekiteko –”Bosbleigh” pista, Bardeako Behatoki Interaktiboa, Tirolina eta Alfontbra Magikoaren instalazio berria–, zein inbertsio publiko egin behar izan dira?

- Zein balorazio egiten duzue egindako inbertsioari buruz eta jende-aurreikuspenei buruz, parkean bertan eta parkearen eragin eremuan?

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	